Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Isabel Arana Barandiaran

Ataun, Gipuzkoa (1928)



Aurkibidea

Biografia



Isabel Ataungo San Martin auzoko Txomin enea kale-etxean jaio zen. Bere lagun Jexuxa Barandiaranekin batera gazte garaiko kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketan. Isabel argazkian eskubitan agertzen dena da.

Zintak

ATA-031

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar

- **Data**: 2011-11-14
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Argitasuna petrolioa erreta

- **Erref**: ATA-031/007
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:06:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Oso leku ederrean jaio zela dio Jexuxak. Argindarra bera ezkontzeko zegoela jarri zuten etxean. Petrolioarekin lortzen zuten argia; bi edo hiru kinka izaten zituzten. Kirats handia omen zeukan.

2. "Cara al Sol" eta "Bienvenida sea usted" eskolan

- **Erref**: ATA-031/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:11:46. **Bukatu**: 00:14:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
"Cara al Sol" abestu beharra izaten zuten eskolan, beso altxatuta, egunero. Norbait sartzen bazen, "bienvenida sea usted" abesten zuten. Maistrak atzamarka egiten zien.

3. Ikasgaia buruz kantuz

- **Erref**: ATA-031/012
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:14:13. **Bukatu**: 00:16:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Eskolan zigortu egin zituztenekoa kontatzen du Jexuxak. Ikasgaia buruz ikasi zuen eta halaxe kantatzen du. Errezatu ere egiten zuten eskolan.

4. Errepublika garaia eta tropak sartu zirenekoa

- **Erref**: ATA-031/013
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:16:11. **Bukatu**: 00:19:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Jexuxaren amak kontatzen zuen errepublika "altxatu" zenean, Ordiziko feriara joanak zirela eta Lazkaon etxapleguak bota zituztela. Gerra garaian, tropak sartu ziren eta herrian denbora asko egin zuten. Orduan ez zuten eskolarik izaten. Uztailaren 25ean sartu ziren tropak, Jexuxaren etxetik behera. Amarekin batera, baserri batera joan zen Ixabel.

5. Bi ataundar fusilatu zituztenekoa

- **Erref**: ATA-031/014
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:19:29. **Bukatu**: 00:22:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Ixabelek ikusi zituen soldaduak Ataungo bi bizilagun kamioietan sartzen. Lizarrustira eraman eta fusilatu egin zituzten. Urbasan bota zituzten. Beldurra pasatu zuen Jexuxak tropak ikusita. Soldaduak kakiz jantzita etorri zirela gogoan du Ixabelek.

6. Dantzarako aukera ugari

- **Erref**: ATA-031/015
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:22:11. **Bukatu**: 00:24:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Erromerietan aho-soinua jotzen zuenik izaten zen. Txistulari famatua zen Migel Mari Imaz. Soinujolea ere egoten zen. Beasaingo banda etorri zenekoa kontatzen du Ixabelek. Lizarrako dultzaineroak etortzen ziren festetan.

7. Gerra garaiko zorriak eta ile mozketak

- **Erref**: ATA-031/016
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:24:33. **Bukatu**: 00:27:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra ostean, eskolan zorriak egoten ziren, soldaduek han lo egiten zutelako. Ixabelen amak ur irakinetan sartzen zituen anaiaren gerrako arropak, zorriak hiltzeko. Jexuxaren anaia eta senarra ere eraman zituzten soldadu gerrara. Gerra ondorenean, emakumeei ilea moztu zietela kontatzen du Jexuxak. Ixabelek dio, eskoletan ilea mozten zietela euskaraz egiteagatik.

8. Eskolatik etxera ikaratuta

- **Erref**: ATA-031/019
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:29:04. **Bukatu**: 00:31:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Ikaratuta ibiltzen ziren eskolatik etxera bidean; kotxea gelditzen bazen, kontuz ibiltzeko esaten zieten, umeak eraman egiten zituztela eta. "Aimariak" jotzerako (kanpaiak), etxeratu egiten ziren.

9. Elizan sartzea, bestela erdituberriak teila jarri behar buruan

- **Erref**: ATA-031/021
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:33:21. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Umea ahalik eta azkarren bataiatu eta handik hamabost egunera izaten zen elizan sartzea, bikarioari oiloa oparituta. Erditu berriari opari ematen zitzaion oiloa. Elizan sartu ez zen emakume erditu berriak, teila jarri behar izaten zuen buruan etxetik irtetzeko.

10. Ezkontzak eta ezkonaurreak

- **Erref**: ATA-031/022
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:39:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Beltzez ezkondu ziren Ixabel eta Jexuxa. Kalera ezkontzen zirenek, ospakizun xumea egiten zuten. Baserrira ezkontzen zirenek berriz, egunetako ospakizuna egiten zuten eta txekor bat edo bi hiltzen zituzten. Ezkon aurretik, bikarioak hiru dei egiten zituen, inork ezkontzaren kontra ezer esateko bazuen ere. Neskak gonbitea eskaintzen zien lagunei.

11. Nobio bat baino gehiago izan zituenari bertsoak

- **Erref**: ATA-031/023
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:39:26. **Bukatu**: 00:42:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Batzuk nobio bakarrarekin ibiltzen ziren eta beste batzuk askorekin. Bertsoak ateratzen zizkieten batzuei, horregatik. Bertso-paperak ferian saltzen zituzten.

12. Mutilekin gustura

- **Erref**: ATA-031/026
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:48:09. **Bukatu**: 00:50:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Mutilen bat gustoko izanez gero, pentsamenduan besterik ez zuten izaten. Esaterik ez zuten izaten. Dantza egin, limonada edan, paseoan egin... Horrela ibiltzen ziren. Jexuxak behin etxera berandu heldu zenekoa kontatzen du.

13. Ataungo festak

- **Erref**: ATA-031/029
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:52:23. **Bukatu**: 00:55:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Festetan aizkora apustuak izaten ziren eta zinta-lasterketa ere izaten zen; neskek zintak jartzen zizkieten uztai batzuei eta mutilek atera egin behar izaten zituzten. Tokan aritzen ziren eta dantzan ere bai. Tabernan lan egin behar izaten zuen Ixabelek.

14. Argazkilariari bihurrikeriak

- **Erref**: ATA-031/030
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:55:05. **Bukatu**: 00:56:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Erreal bikoa jasotzen zuten etxean, festetarako. San Gregorioko festetan, argazkilariari bihurrikeria egiten zioten, argazkia atera eta korrika alde egin ordaindu gabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com